



Ligatzeko teknikak erakusteko ikastaroa

Udal-ikastaro bat antolatu dute gazteei ligatzeko teknikak erakusteko. Ikastaro honetan, besteak beste, solasaldi bat hasteko eta amaitzeko gakoak azalduko dizkiete.

Burrianako Udaleko Gazteria Sailak (Valentziako Komunitate Autonomoa) ligatzeko teknikak erakusteko ikastaro bat antolatu du.

El Periodico Mediterraneo egunkariak argitaratu duenez, ikastaroa 30 ordukoa izango da eta norbere burua hobeto ezagutzen irakatsiko diete gazteei.

Ikastaroan izena ematen dutenek norberaren bertuteak eta akatsak antzematen ikasiko dute, baita horiek nola indartu eta nola disimulatu ere.

Horretaz gainera, solasaldi bat hasteko eta amaitzeko gakoak azalduko dizkiete gazteei. Erabakien inguruan ere arituko dira, hau da, erabaki zuzenak nola aukeratu eta erabaki bat hartzeko une egokia zein den azalduko diete. Era berean, esan behar denaren eta isilik gorde behar denaren komenientziaz ere arituko dira.

Ikastaroa 17 urteko gazteei zuzenduta dago eta datorren urriaren 28an hasiko da Casal Jove eraikinean. Ikastaroa Psikologiako profesional batek gidatuko du.

Iturria: <http://www.habe.org/idadzia>